

MANIFESTUA

Gaur azaroaren 25a, eskolan **INDARKERIA SEXISTAREN KONTRAKO NAZIOARTEKO EGUNA** ospatu nahi dugu. Alde batetik, emakumeek eta neskek pairatzen dituzten indarkeria mota guztiak salatuz, eta bestetik indarkeriarik gerta ez dadin lan egiteko konpromisoa hartuz.

Hori dela eta, Eskola osoak zera aldarrikatu nahi du:

1. Emakume eta neska guztion eskubideak errespetatuko eta errespetaraziko ditugula.
2. Emakumeek jasotzen duten edozein indarkeriari, fisikoa zein psikikoa, aurre egingo diogula.
3. Elkartasunean eta errespetuan oinarritzen diren harremanak bultzatuko ditugula.
4. Elkarrizketan eta laguntasunean oinarritutako eredu eta mezuak erabiliko ditugula.